

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kanpezuko enplegurako dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia onartzen duen 2025 ekainaren 6ko Alkate ebazpenaren laburpena

BDNS (Identif.): 840342.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/840342>).

KANPEZUN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2025

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerrian dauden pertsonak, enpresek edo haien sukurtsalek jaso ahal izango dituzte kontratazioagatiko pizgarriak, bia eta, egoitza soziala udalerritik kanpo izanda ere, 2025.urtean udalerrriaren barruan noizean behin edo aldizka edozein jarduera edo lan egiten dutenek ere.

Bigarrena. Helburua

Kanpezuko udalerrian erroldatutako persona langabe eta ekintzaile autonomoen laneratzea eta gizarteratzea sustatzea da oinarri hauetan araututako laguntzen xedea, eta, horretarako, persona horien kontratazioa edo norberaren konturako ezarpena sustatzeko dirulaguntzen ezarpena arautuko da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2017ko irailaren 12an Osoko Bilkurak onartutako Ordenantza. (ALHAO 2. zkia., 2018ko urtarrilaren 5ekoa).

Laugarrena. Zenbatekoa

1. Honako hauek lagunduko dira diruz, baldin eta enpresako plantilla osoa handitzen badute kontratazio berria egin aurreko 6 hilabeteetan zegoenaren aldean:

a) Iraupen mugagabeko kontratuak. Aldizkako finakoak ez dira sartzen: 1.500,00 euro.

b) Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2025 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.1. artikuluen a) eta b) letretan ezarritako kontratuak, gutxienez 12 hilabeteko iraupena dutenek, salbu eta b) apartatu horretako kontratuak, sektoreko hitzarmen kolektiboak gutxienezko iraupena baimentzen ez duenean, hitzarmen horretan ezarritakoa izango da, eta, nolanahi ere, gutxienez 6 hilabetekoa.

Plantilla osoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko bitarteko kontratua duten langileak.

Kontratu horiek gutxienez urtebeteko iraupena badute, 750,00 euroko dirulaguntza emango da.

Kontratuaren iraupena gutxienez sei hilabetekoa bada, dirulaguntza 350,00 eurokoa izango da.

Zenbatekoa horiek ehuneko 20 handituko dira, baldin eta inoiz enplegurik lortu ez duten 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (12 hilabete enplegu- eskatzaile gisa inskribatuta) edo langabeziatik datozen 55 urtetik gorakoak kontratatzen badira.

Ehuneko horiek ezin dira elkarren artean metatu.

Ehuneko horiei ehuneko 20a gehituko eta metatuko zaie kontratatuko persona emakumea bada.

2. Autonomoak badira, 1.500,00 euroko dirulaguntza emango da, eta aurreko paragrafoan jasotako ehunekoekin handituko da, baldin eta kolektibo horietakoren batean sartuta badaude.

3. Lanaldi partzialeko kontratuetan, lanaldi osoko langile batean lanaldiaren ehuneko 50eko gutxieneko iraupenarekin, aurreko pizgarriak benetako lan-denboraren proportzioan hainbatutuko dira.

4. Laguntza horiek gehienez ere 3 kontrataziotara mugatuko dira enpresa eta urte bakoitzeko, horien dedikazio-denbora edozein dela ere.

Dirulaguntza bat baino ez da emango persona bera kontratatzeagatik, eskaera enpresa batek baino gehiagok egin arren.

Autonomoen kasuan, eskaera bakoitzeko IFZ baten gehieneko dirulaguntza baino ez da emango.

5. Arestian aipatutako kontratu-moten izendapenak dagokion urteko deialdia onartzen den unean indarrean dagoen lan-araudiaren mende egongo dira.

6. Eman beharreko eskabideek laguntzetara bideratutako guztizko zenbatekoa (2.000,00 euro) gaintitzen badute, zenbateko hori proportzionalki banatuko da onuradunen artean.

Bostgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, kontratazioa edo EJZn alta eman eta 3 hilabete igaro ondoren aurkeztuko dira, 6 hilabeteko epean.

2025ean egindako kontratuen kasuan, deialdi hau argitaratzen den unean aurreko paragrafoan ezarritako epeak amaituta badaude edo horretarako 15 egun natural baino gutxiago falta badira, epeak deialdia argitaratzen denetik hasiko dira zenbatzen.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko ekainaren 6a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO